

ELKAR MUGITUZ, HIZKUNTZA OHITURAK ALDATZEKO ORDUA

Egun gutxi falta dira Euskaraldia hasteko. Izan ikasle, dendari, enpresari edo guraso, Durangaldean herritar ugarik egin du bat egitasmoagaz. Oraindino izena eman ez duenak zabal-zabalik du horretarako aukera, 'euskaraldia.eus' atarian.

HOME SCHMIDT HOME

SUKALDEAK ETA ETXEKO ALTZARIAK

Abadiño



Maiatzaren 2tik 31ra

UDABERRIKO
ESKAINTZAK

www.homedesign.schmidt



lurretako hainbat herritarrek egin dute bat Euskaraldiagaz. ERRI ME EUSKARA ELKARTEA

Hizkuntza ohiturak eraldatzeko ordua

Maiatzaren 15etik 25era Euskaraldia egingo da Euskal Herriko luze-zabalean. Heldu da txapak paparrean ipini eta hizkuntza ohiturak eraldatzeko ariketa erraldoia: "Oraintxe da euskararen erabileran jauzia eman ahal izateko ordua", esan dute antolatzaileek

Ekaitz Herrera EUSKARALDIA

Entzun, gure bihotzaren taupadak euskaraz dira! dio Bulego taldeak Euskaraldirako beren-berregi konposaturiko kantak, eta orain, taupadak barik, euskarazko elkarriketak hauspotzeko eta entzuteko sasoia heldu da. Euskaraldia, hizkuntza ohiturak eraldatzeko ariketa erraldoia, datorren egunean hasiko da, eta maiatzaren 25era arte egongo da martxan. Bitarte horretan, *Ahobiziek* eta *Belarriprestek* paparrean txapa bana ipinita egingo dute bizimodua kaleetan, etxeetan, lantokietan zein aisialdian. Ahobizi rola aukeratu dutenek euskaraz bizi gura dutela eta hizkuntza dakienari zein ulertzen duenari euskaraz egingo dietela erabaki dute. Belarriprest rola jokatzeko dutenek, oster, hizkuntza ondo-ondo egin ez arren, euskararen trebatu gura dutela eta dakienak euren euskaraz egin diezaizkela eskatuko dute. "Oraintxe da euskararen erabileran jauzia eman ahal izateko batzeko tenorea; denok batera eraginda entzungo baita euskara gehiago gure kaleetan", adierazi du Euskaraldiko koor-

dinazio orokorreko Jon Kobeaga kideak. Euskararen erabileran eragiteko "orain-oraingoz daukagun tresnarik indartsuena" legez definitu du Euskaraldia.

Ahobizi eta Belarriprest rolez gainera, hirugarren bat ere egongo da jokoan: xaxatzaileen rola. Umeek eta nerabeek helduak xaxatzeko lana izango dute, erdaraz berba egiteari utzi eta euskaraz hasi daitezke. Edozelan ere, Ahobizi, Belarriprest ala xaxatzaile izan, Euskaraldiko kideek azpimarratu dute euskaraz egitea dela kontua: "Euskaraz berba egiteko dugun gaitasuna baino gehiago, euskaraz zenbat, zenbategaz eta zenbatetan egingo dugun erabakitzea da garrantzitsua". Erabaki horrek bakarrik norberak 11 egun horietan izango duen jarreraren eta portaeraren inguruan pentsarazten du, beraz. Eta parte-hartzaile guztiek harturiko erabakiei eskerrak, egunerokotasunean euskararen presentzia areagotzea lortzea du helburu Euskaraldiak. Heldu da ordua, eta ariketan parte hartzeko aukera zabalik dago oraindino ere. Izen emateak *euskaraldia.eus* atarian egin daitezke.





Egitasmoan masiboki izena emateko deia

Ariketa erraldoian izena emateko aukera *euskaraldia.eus* atarian egongo da zabalik, maiatzaren 14ra arte

Ekaitz Herrera ERAGILEAK

Ez da lan handia eta ez dago aitzakiarik. Minutu bat baino ez da behar *euskaraldia.eus* atarira sartu, Ahobizi edo Belarriprest rola aukeratu, eta norbere udalerrira sakatuta Euskaraldian inskribatzeko. Egitasmoaren bultzatzaileek behin baino gehiagotan adierazi dute zenbat eta lagun gehiago izan txapa paparrean ipinita, orduan eta arrakastatsuagoa izango dela Euskaraldia, horrek ahalbidetuko baitu, hain zuzen ere, kalean gurutatu edo dendan ikusten dugun ezezagunak lehenengo berba euskaraz lasai egitea. Izen ematea egiten duenak Euskaraldiaren aurreko egunetan jaso ahal izango du bere txapa, bere udalerriko batzordeak antolaturiko mahaian.

Bien bitartean, herri eragileek euren atxikimendua erakutsi diote hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketari. Kultur elkarteak, guraso elkarteak, instituzioak, enpresa edo sindikatua izan, eragile bakoitzak argi du funtsezko rola beteko duela Euskaraldiak arrakasta izan dezan. Besteak beste, Durangoko Pilota Eskolako kideek bat egin dute izen emateagaz: "Euskara gure elkartearen ardatzetariko bat da, eta, horre-

gaitik, Euskaraldiaren moduko ekimenak babestea garrantzitsua da", esan du Txaber Zabala arduradunak.

Durangoko ikastetxeak ere ez dira atzean geratu. Azken asteotan, irudiak egiten ibili dira Euskaraldiari harrera egiteko, eta sorkuntzok udalerriko hainbat lekutan ipini dituzte. Horrez gainera, apirilaren 30ean ekitaldia egin zuten Ezkurdin, egitasmoari atxikimendua agertzeko. Batzorde eragileko kideek eskerrak eman zizkieten egiten dabiltzan lanagaitik. "Herriko eragile sozial aktibo eta garrantzitsuak zarete", esan zuten batzordeko kideek.

Lelo edo goiburu txapelketa

Euskaraldiaren atariko legez, Durangoko batzordeak joko txiki bat antolatu du: lelo edo goiburu txapelketa. Durangarrei dei egin diete Euskaraldirako eslogan edo mezu eder bat sortu eta batzordera bidaltzera. Herriarrek Whatsapp bidez bidali beharko dute mezua, 688 778 288 telefonora. Maiatzaren 12a izango da leloak bidaltzeko azken eguna. Irabazleak Euskaraldiaren kamiseta eta 80 euroko bonua eskuratuko ditu liburu denda batean gastatzeko.



Durangoko pilota eskolako kideek gogotsu ekingo diote ariketari.



ANBOTOk lantaldeak bat egin du Euskaraldiagaz.



PUBLIERREPORTAJEA

“'Sin Instrucciones' film luzean lan egiteko aukera izan nuen eta esperientzia izugarria izan zen”

JON VALIER MAIZTEGUI | DURANGO | **Gradua:** IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA

| Zaletasunak: Surf-a, futbola, bideogintza, diseinua eta musika.



Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko 4. mailan zaude. Zergatik aukeratu zenuen gradu hau eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Gradu hau batxilergoko azken txanpan aukeratu nuen, ez nukan oso argi zer ikasi nahi nuen. Graduak ikasle ohi batzuekin hitz egin eta gero argi izan nuen egin nahi nuen gradua hau zela, oso praktikoa delako eta sormenak garrantzi handia duelako. Betidanik izan dut sortzeko eta egoera desberdinei aurre egiteko irudimena eta sormena, eta horregatik, hain zuzen, hautatu nuen gradu hau.

Nolakoa izan da orain arte bizitako esperientzia?

Graduan moduluka egiten dugu lan eta badaude modulu batzuk erakargarriagoak iruditzen zaizkidanak. Orokorrean, lan praktikoa asko dagoenez oso gustura aritu naiz, batez ere 3. mailan eta 4. mailan, nire interesa piztu duten modulu batzuk izan ditugulako, film laburra grabatu genuen modulua, adibidez. Horrez gain, zorte handia izan nuen praktikak bilatzerako orduan, *Sin Instrucciones* film luzean lan egiteko aukera izan nuen eta esperientzia izugarria izan zen.

Zein metodologia erabiltzen duzue?

Taldekatu lan asko egiten dugu, eta, nire ustez, onuragarria da guretzat, industrian taldeetan lan asko egiten delako eta bakoitzaren indarguneak identifikatzea eta indartzea beharrezkoa delako. Metodologia, esan bezala, praktikoa da eta ikasteko dagoen metodologia

egokiena iruditzen zait, graduan material teknikoarekin lan egiten dugulako eta material hau erabiltzen ikasteko mende egiten digulako formatu honek.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Aurretik aipatutako gauzak asko gustatzen zaizkit, baina zerbait azpimarratu beharko banu eskuragarri dugun material guztia da: mailegu-zerbitzua, platoa eta info-gelak. Espazio eta material hori guztia eskuragarri dugu ikasleok, eta aurretik aipatutako praktikotasun hori aurrera eramateko beharrezkoak dira.

Etorkizunari begira, zein asmo daukazu?

Etorkizunari begira, sormenarekin zerikusia duen zerbaitetan aritzea gustatuko litzaidake; besteak beste, argazki-zuzendaritza, diseinu grafikoa edo marketing digitala esparruak interesatzen zaizkit.



A. M. BATZORDEAK

Euskaraldia ate joka dagoen herrietan, ariketa sozial erraldoia antolatzen dabilzan herri batzordeak egitarauen azken xehetasunak lotzen dabilta. Durangon, besteak beste, dozenaka lagunek txiki utzi zuten Durangoko Museoa Kike Amonarrizen berbaldia entzuteko. Iruri Altzerreka, Jone Gutierrez eta Pello Zabarte Durangoko Euskaraldiko batzordekideak dira; hirurek lehenengo aldia dute batzordean, eta gogotsu daude maiatzaren 15ean ekimenari hasiera emateko. "Aurretik lan dezente eginda, egun horietan egingo den ariketa ondo irtetea baino ez da falta", azaldu du Altzerrekak. Gutierrezen kasuan, Euskaraldian parte hartuko duen lehenengo aldia da. "Orain parte hartu dezake dala, barrutik ere zelan bizitzen zen ikusi gura nuen", esan du. **Gogotsu Euskaraldiaren edizio berriak?**

Jone Gutierrez: Lan mordoa egiten gabilta; hainbat ekintza egin dugu, azkeneko asteetan batez ere, eta gogo itzela dut, bai. Lan polita egin dugu eta gogotsu nago Euskaraldia heltzeko.

"Garrantzitsua da Euskaraldirako izena ematea eta txapa ipintzea"

IRURI ALTZERREKA, JONE GUTIERREZ ETA PELLO ZABARTE DURANGOKO EUSKARALDIA

Batzordeek asteak daramatzate Euskaraldia prestatzen herrietan; Durangoko hasiera ekitaldia 19:00etan egingo dute Ezkurdin. Batzordeko kideak dira Iruri Altzerreka, Jone Gutierrez eta Pello Zabarte



Altzerreka, Gutierrez eta Zabarte.

Pello Zabarte: Baita ni ere. Batzordearen ikuspegitik oso prozesu luzea da, baina azken aste eta egunetan gorpuzten da edo ikusten da lan horren eragina, batez ere. Beraz, gogotsu. **Iruri Altzerreka:** Aspaldi hasi ginen batzen, eta azken asteetan intentsifikatu egin da kontua. Apirilean ekitaldi dezente euki dugu eta datozen egunetan ere beste batzuk ditugu aurretik. Gogotsu, beraz, Euskaraldia hasteko.

Orain artean Durangon egin diren ekitaldiak nahiko jendetsuak izan dira. Pozik?

P. Z.: Baietz esango nuke. Aurreko Euskaraldiekin ezin dut alderatu, baina Durangon ez





ezik, beste leku batzuetan ere aurreko Euskaraldietan baino ekitaldi gehiago egin da, eta aurrerapen handiagoagaz. Horrez gainera, ekintzak eurak ere desberdinak izan dira beste Euskaraldi batzuekin alderatuta; leloak dioen moduan, *Elkar mugituz egingo dugu*, eta, hori dela eta, pertsona eta entitate gehiagok lan egin dugu. Izen ematea ahalik eta handiena izatea, paparretan ahalik eta txaparik gehien ikustea eta Euskaraldiko egunak ahalik eta ondoren irteeta baino ez da falta orain.

Durangon 2.000 izen ematera heltzeko erronka bota du batzordeak.

I. A.: Bai, sare sozialetan 2.000 izen ematera heltzeko erronka bota genuen, jendea apur bat xaxatzeko ere bai, polita iruditzen zaigulako zenbaki horretara ailegatzea. Beste edizio batzuetako datuak kontuan hartuta, orain batzordekideon lana jendea Euskaraldira erakartzea eta izena ematera animatzea ere bada.

Zelan bizi duzue Euskaraldia barrutik?

J. G.: Hasieran urruneko zeozer lez ikusten nuen; zer egin pen-

tsatu behar da, eta lan hori anolatu. Behin hori eginda, hurrengo pausoa Euskaraldia bera bizitzea tokatzen da. Orain arteko lana asko gustatu zait, eta, gainera, nire lehenengo Euskaraldia denez oso modu intentsoan bizitzen nabil.

I. A.: Atzetik zenbat lan duen ikusi dut, kanpotik begiratuta beharbada kontuan hartuko ez nituzkeenak. Zenbat bilera, eta zenbat lan eta baliabide behar den tamaina honetako ekitaldi bat aurrera eramateko.

P. Z.: Durangon batzorde polita osatu dugu, gainera. Hogeitaz lagun elkartu gara asteotan, adin desberdinetakoak eta inguru desberdinetakoak, eta horrek ere edertu egiten du prozesua bera.

Jone, zuretzat lehenengo Euskaraldia da, orokorrean. Gogotsu zaude?

"ADIN ETA INGURU DESBERDINETAKO JENDEAGAZ, DURANGON BATZORDE POLITA OSATU DUGU"

J. G.: Ikastolan nenbilenean, Altxorbizi erronka genuen eta gogoan dut ea zergaitik ezin nuen Euskaraldian parte hartu galdetzen niola amari. Orain parte hartu dezaket eta barrutik zelan bizitzen den ere ikusi gura nuen. Parte hartzerakoan, benetan sentitu gura nuen erronka kolektibo hori, erronka pertsonaletik harago. Gogotsu eta ilusio handiz nago, eta nire inguruan ere sentsazio hori igartzen dut. Nire kuadrillako batek nire aurretik eman du izena, atera kontuak! (barez).

Azken mezu bat herritarrentzat?

P. Z.: Garrantzitsua da, nire ustez, jendea izena ematera animatzea. Euskaraldi berri bakoitzak izen emate berri bat eta txapa berri bat dakartza. Hori gogorarazi behar diogu jendeari. Bestetik, ariketa kolektibizatze aldera, Euskaraldian parte hartzeko asmoa dutenek ingurukoak ere xaxatzea gusatuko litzaiguke, ahalik eta jenderik gehienak emateko bultzada Euskaraldirari eta partaidetza ahalik eta handiena izan dadin.

Zornotzan Euskaraldirako prest

Euskaraldia hasi baino egun batzuk lehenago, Zornotzako batzordekoek ere deialdi berezia egin dute izena emateko eta txapak ipintzeko.

"Herritarrek badute Euskaraldiaren berri, ez zaie arrotza egiten, baina garrantzitsua da izena ematea eta maiatzaren 15tik 25era bitartean txapa ipintzea", azaldu du Naia Odriozola batzordekideak. Aurreko urteetan etorritako jendeaz gainera, gazteak ere gogotsu ikusi ditu Euskaraldiaren laugarren edizio honetarako.

"Udabarri dantza taldean ere errelebo aldaketa bat dute eta Euskaraldia baliatu gura izan dute euskara gazteen artean bultzatzeko, besteak beste", gehitu du.

Udaberriagaz batera, Euskaraldia

Itsaso Basauri Elorrioko Euskaraldiko batzordekideak uste du Euskaraldia udaberrian egiteko aldaketa onerako izango dela. "Udaberrian eginda, Euskaraldia kalean izango da gehiago, eta horrek erakargarriago egingo du; aldaketa interesgarria dela uste dut", azaldu du. Elorrioren ere, gainerako herrietan legez, Euskaraldiari ekiteko azken lanekin dabilta, eta baita izena emateak eta Euskaraldiak irauten duen egunetan txapa ipintzeak duen garrantzia gogoratzen ere. "Bilera mordoa egin dugu orain arte, hainbat elkartegaz sozializatze aldera, eta orain kaleko lanagaz jarraituko dugu", azpimarratu du.

MONDRAGON Lanbide Heziketa

AURREMATRIKULA *Maiatzaren 5etik 23ra*

MONDRAGON



GIZATASUNA
LANEAN

Finantza
Industria
Banaketa
Ezagutza

**KOOPERATIBA / GERTUTASUNA / GIZARTE
ERALDAKETA / ENPRESAREKIN LOTURA**



MARKINA-XEMEIN

ERDI MAILA

Berco Sortzeko Instalazioak
Mantentze-lan Elektromekanikoa
Instalazio Elektriko eta Automatikoetako Teknikaria
Elikagaiak Elaboretzeko Teknikaria
Soldadura eta Galdaragintza
Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Arreta
Automatismo Elektriko-elektronikoak Mantentzea (Grado C)

GOI MAILA

Administrazioa eta Finantzak
Elikagaien Industriako Prozesuak eta Kalitatea
Automatizazioa eta Robotika Industrial
Web Aplikazioen Garapena
Mekatronika Industrial
Efizientzia Energetikoa eta Eguzki Energia Termikoa
Fabrikazio Mekanikoko produkzioaren programazioa

ESPEZIALIZAZIO IKASTAROAK

Zibersegurtasuna Eragiketa-teknologiaren Inguruneetan



DERIO

ERDI MAILAKOAK

Mekanizazioa
Mikroinformatika Sistemak eta Sareak

GOI MAILAKOAK

Sareko Informatika Sistemaren Administrazioa
Salmentak eta merkataritza espazioen kudeaketa
Ingurumen Hezkuntza eta Kontrola
Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
Automatizazioa eta Robotika Industrial

ESPEZIALIZAZIO IKASTAROAK

Elkarlaneko Robotika
Fabrikazio Adimentsua
Industriaren Eraldaketa Digitala



"Txapen erabilera urteko 365 egunetara zabaldu behar genuke"

Durango AEKko ikasleek jatorri eta bizileku desberdinak dituzte, baina euskarak batzen ditu. Etxekoekin erabiltzeko, euskaltik baturako saltoa emateko zein lan kontuetarako dabilta euskararen trebatzen. ANBOTOk B2 mailako ikasleak bisitatu ditu

Ekaitz Herrera IKASLEAK

Martitzen goiza da. Euria ari du, zerua goibel dago eta oraindino Euskaraldia hasteko egun batzuk falta diren arren, Durango AEK hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketan murgilduta dabilzala dirudi. Izan ere, AEK urte osoan zehar da Euskaraldia. Belarriprest zein Ahobizi, izan irakasle zein ikasle, denek darabilte-eta euskara ahoan, urteko 365 egunetan. ANBOTOk ere halantxik harpatu ditu B2 mailako ikasleak: ikasturte osoan bezain Belarriprest

eta Ahobizi, edo, beste era batera esanda, ikasturte osoan zehar bezain buru-belarri. Atea kas-kas jotzeagaz batera egin diote harre-ra kazetariaren ezohiko bisitari, eta luze barik hasi dira batzen dituen horri buruz berbetan, euskarari buruz hain zuzen ere.

Vanesa Seoane, Carlos Frias, Zigor Mendizabal, Josemari Juaristi, Marisa Cabrerizo, Itxaso Egidazu eta Lidia Galvan dira B2 mailako ikasleetariko batzuk. Ane Abanzabalegi irakaslea dute gidari. Ikasleetariko batzuk Du-

rangaldekoak dira, kanpotik etorritakoak beste batzuk. Bilbotik, Madrildik, Kubatik. Bakoitzak arrazoi desberdina du euskara ikasteko. Marisa Cabrerizo, adibidez, madrildarra da sortzez, baina urte ugari darama Duran-

"LEHENENGO EDIZIOTIK PARTE HARTU DUT EUSKARALDIAN; PREST DUT TXAPA"

galdean bizitzen. Erretiroa hartuta dago, baina hizkuntza hobetzeko hautua egin du, bilobekin euskaraz berba egin ahal izateko. "Izan ere, nire inguruan dena egiten da euskaraz", esan du. Josemari Juaristiren kasua antzekoa da. Durangarra da, jubilatuta dago, eta euskalkia ondo egiten duen arren, euskara batuan trebatzea erabaki du. "AEK ikasita eta egunerokoan telebista eta irratia euskaraz entzunda, errazago ikasten dut batua", argitu du. Zigor Mendizabal tolosarra da jatorriz, eta euskalki bi darabiltza bere egunerokotasunean: bere sorterrikoa bata, ikastolan ikasitakoa, eta gaur egun bizileku duen Berrizkoa bestea. Lantokian ere euskara darabilela esan du. Urteak dira Vanesa Seoane Bilbotik Durangora bizitzera etorri zela. "Hona etorritakoan mundu guztia euskaraz zebilela ikusi nuen. Horrek Bilbon neukan txipa aldatzea eskatu zidan, han ez da eta hain ohikoa euskara entzutea. Txip aldaketa horri eskerrak, gaur egun berba gehiago egiten dut euskaraz", zehaztu du. Lidia Galvanek 20 urte ditu eta Abadiñokoa da.

Anatomia patologikoa eta euskara ikasten dabil, fakultatean eta AEK, hurrenez hurren.

Argi dago jatorriak eta bideak desberdinak izan arren, hizkuntzak batzen dituela, eta Euskaraldia batuko dituela. "Edizio guztietan parte hartu dut eta oraingo honetarako ere jada prest daukat txapa", azaldu du Marisa Cabrerizok. "Belarriprest izango naiz", zehaztu du. Josemari Juaristik ere parte hartuko du Euskaraldian, baina ariketa hamaika egunetakoa barik urte osora zabaltzea gura du. "Horixe uste dut nik", esan du, "ariketa urte osoan zehar egin beharko litzatekeela. Egunerokotasunean". Carlos Friasentzat "ospakizuna" da Euskaraldia, "hizkuntza indartzeko ospakizuna". "Lehenengo ediziotik hona beti parte hartu dut, eta ahal dudan guztietan nabil euskaraz. Zorteduna naiz, inguruko kide guztiak euskaldunak dira eta", nabarmendu du. Euskaraldian rol bat edo bestea jokatu, Vanesa Seoanek txapa soinean ikusgai egoteari egin dio azpimarra: "Txapa ipinita jendea ulerberagoa da zugaz. Euskaraz egiten dizute eta zuri laguntzen ahale-





Durangoko AEKren euskaltegi B2 mailako klasea.

gintzen dira. Enpatia sortzen da hor. Joera hori hamaika egunetan barik urte osoan zehar izan behar genuke".

Ohiturak zelan aldatu

Tertulia aurrera doa apurka-apurka, harik eta egungo hizkuntza ohiturek eztabaidaren erdigunea hartu duten arte. Ikasleek kezka dute hizkuntza ohiturak direla

eta. "Aurreko batean, bazkari batean, euskal hiztunak diren lau ilobak, lehengusuak laurak, erdaraz zebiltzan Whatsappez euren artean. Ezin nuen ulertu", azaldu du Friasek. Cabrerizok azpimarratu du norberak egin behar duela euskaraz egiteko hautua: "Euskaraz egin behar dugu, horixe delako gure hizkuntza. Euskaraz egitea dagoki-

gu". Seoane ados dago esandako horiekin guztiekin, eta honako hau gaineratu du: "Horixe egin

**"TXAPA ALDEAN
IPINITA JENDEA
ULERBERAGOA DA
ZUGAZ; LAGUNTZEN
AHALEGINTZEN DA"**

behar dugu hizkuntza desagertu ez dadin: erabili".

Bistakoa denez, AEKko ikasleek eztabaida luzerako osagaiak plazaratu dituzte, hizkuntzagazko ardurak eta grinak barrenak mugitzen dizkien seinale, baina horiek beste baterako utzi behar, bisita ordua amaitu egin da eta. Eta ikasleak azterketa garaian sartuta daudenez gero, kazeta-

riari ez zaio enbarazu gehiegirik egitea komeni. Azterketak gainditzeko zortea opatu eta gero, kanporantz zuzendu da, aterkia eskuetan. Baina atertu egin du kanpoan, ez dago egun goibelaren arrastorik. AEKko ikasleek ondotoxo dakiten moduan, ostarteak zabaldu zaizkio zeruari, hizkuntzari bezainbeste. Biba!

AURRE-MATRIKULA

MAIATZAK 5etik 23ra



MERKATARITZA



ADMINISTRATIO
ETA
KUDEAKETA



JARDUERA
FISIKOAK
ETA KIROLAK



INFORMATIKA
ETA
KOMUNIKAZIOAK



IZENA EMAN
943 89 92 11
www.uni.eus



Osaketa Hiribidea, 29
20600 Eibar, Gipuzkoa
943 89 92 11
ida.karitza@uni.eus
www.uni.eus
@uni.eus



EUSKO JAURLARRIA
GOBERNIO NASCO
HEZKUNTZA
DEPARTAMENTUA

* IKASTETXE PUBLIKO DOAKOA

"Gazteekin lanketa potoloa egin beharko litzateke"

OIHANA AZKORBEBEITIA URIZAR KORRIKALARIA

Korrikalari abadiñarra Euskaraldiaren enbaxadore taldeko kidea da. Egunero darabilen errejeta aplikatuko du Euskaraldian: "Nire lehenengo berba euskaraz da beti"

J.D. HAMAIAKOA

Gazteei zein hain gazte ez direnei begira egoki ikusten du Euskaraldia, gaztelaniara jotzeko ohitura aldatzeko. Euskararen enbaxadore izatea "ohorez" hartu duen zeregina dela dio. **Zer suposatzen du gonbidapen horrek zuretzat?**

Polita da horrelako gauza baterako zugaz akordatzea, euskararen enbaxadorea izatea ohorea delako niretzat, eta esango nuke edozein euskaltzalerentzat ere badela.

Euskaraldian zein modutan parte hartzeko asmoa duzu?

Ba, modu erraz eta natural batean, urteko 365 egunetan jokatzen dudana moduan, nire ingu-

ruan eta Euskal Herriko txoko eta bazter guztietan beti euskaraz hautatuta lehenengo aukera modura. Nire lehenengo berba euskaraz izaten da beti, eta egun hauetan berdina egiten jarraituko dut. Hala erakutsi zidaten aita-amek txikitan, eta berdin ahaleginduko naiz erakusten etxean semei.

Euskarak zein leku du zure lanean? Albaitaria naiz eta lan egiten dudana klinikan neu naiz euskal hiztun bakarra. Bitxia da ikustea zelan aldatzen den bezero batzuen jarrera kontsulta nigaz bada edo lankideekin. Denek dakite euskaraz egingo diedala hasieran, eta pozgarria da batzuek, euskaldunak ez direnek,

euskaraz erantzuteko ahalegina egiten dutela ikustea. Gehiago gazteak badira. Gaur egun ume eta gazte guztiek dakite euskaraz, eskolan ikasita behintzat, eta, beraz, beti euskaraz hartuko ditut klinikan. Euskarari bere lekua egiten ahaleginduko naiz beti.

Eta zure egunerokoan?

Oso arraroa da niri erdaraz entzutea kalean. Euskarak guztiz betetzen du nire lekua eta nire espazioa egunerokotasunean. Euskaraz bizi naiz eta ingurukoak ere horretara animatuko ditut eurekin euskaraz eginda. **Abadiñarra zara. Herrikideak Euskaraldian parte hartzeri animatuko zenituzke?**



Euskararen balioa eta garrantzia transmititzen ahaleginduko da. TTAP

Zelan ez! Animatu eta gure hitz-kuntzaren balioa eta garrantzia transmititzen ahaleginduko naiz. Ariketa eta gogoetarako egunak dira, baina garrantzitsuena mezuia barneratzea da, eta jendea euskaraz bizitzera animatzea. **Zelan ikusten duzu euskararen egoera zeure herrian?**

Zoritxarrez, geroago eta okerrago. Geroago eta gazte gehiago

entzuten da kalean erdaraz, eta euskara maila ere pobretzen dabil. Gazteak dira etorkizuna, eta, alde horretatik, lanketa potolo bat egin beharko litzateke. Badago hain gaztea ez den jendea ere, euskaldun zaharra, kalean erdara hutsean dabilena, eta horiei begira ere egoki ikusten dut Euskaraldia, hizkuntza ohitura hori aldatzeko.

Amorebieta Etxano
UDALA AYUNTAMIENTO

*Amorebieta-Etxano
Euskaraldiarekin bat!*

> anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrindia.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta, Miren Abasolo Txabarri eta Xabier Lazkano Baseta.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala eta Irati Otadui Maiztegi.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

LAGUNTZAILEAK



DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



"Euskaraz bizi, pentsatu eta amesten dut"

ENeko ATXA AZURMENDI SUKALDARIA

Lehenengo berba euskaraz esatearen garrantzia azpimarratu du sukaldari zornotzarrak. Euskaraldiaren enbaxadoreetariko bat da hamaikakoan

Jone Guenetxea HAMAIAKAKOA

Michelin izarren distirak ez du Eneko Atxaren izaera eta pentsaera aldatu. Euskalduna eta euskaltzalea, Euskaraldiko hamaikako kide da.

Euskaraldia martxan da eta Hamaikakoan parte hartzen zabilta. Zer suposatu du gonbidapen horrek zuretzat?

Gonbidapen hori ez da izen bat zerrenda batean, baizik eta erantzukizun eta konfiantza bat, arnas batean gordetako konpromiso bat. Altxor bat jaso duenaren esker onez, sentitu dut nire txanda heldu dela: isiltasunaren lekuko izan ez, baizik eta euskararen ahots.



Eneko Atxa.

Euskaraldian zein modutan parte hartzeko asmoa duzu?

Eguneroko militantziagaz jarraituta, bai etxean familiagaz eta bai kalean lagun artean Ahobizi rolean. Euskaraz hasi, euskaraz iraun eta euskaraz bizi.

Euskarak zein leku du zure lan bizitzan?

Hauxe da niretzat gauzarik gaxena. Asko kostatzen zaigu jendeak bere lan esparru barruan euskaraz egitea. Ahalegina egiten dugu, euskara klaseak ere antolatu ditugu lan-kideentzat, baina asko daukagu egiteko eta hobetzeko. Hauxe da, dudarik barik, gure erronkarik nagusienetakoa.

Eta zure egunerokoan?

Euskaraz bizi naiz, euskaraz pentsatzen dut eta euskaraz amesten dut. Etxekoan arteko goizeko gosari lasaietan, bikotekideagaz euskaraz da lehenengo, tarteko eta gaueko azken berba, baita lagunarteko barreetan eta neure buruagaz izaten ditudan pentsamenduetan ere. Ez da atzoko ohitura bat, ezta biharko helburu huts bat ere: gaurko hizkuntza da, orainaren zentzua ematen didana.

Zornotzarra zara. Herrikideak animatuko zenituzke parte hartzera?

Bai, bai. Zornotzarra naiz eta Zornotza herri emankorra dugu, euskaraz hazi eta euskaraz bizitzeko modukoa. Baina lurrik onena ere ureztatu beharra dago. Herrikideei esango nieke: "ez zaitezte beldurtu, esan lehenengo berba euskaraz, eta ikusiko duzue zenbat mundu zabaltzen diren".

Zelan ikusten duzu euskararen egoera zeure herrian?

Hazten dabilen zuhaitz bat legeztatu ikusten dut: sendoa, baina zaindu beharrekoa. Adar berriak ditu gazteen artean, eta erroak sakonak, baina oraindino bada hosto gehiago zabaltzeko, kale, denda, taberna, plaza, jolastoki zein kirolguneetan, eta, batez ere, dakitenen eta erabiltzen ez dutenen etxeetan eta familiengan. Euskara jakitea eta erabiltzea egundoko zortea da, harrotasun handiz erakustekoa. Eta, gainera, hizkuntza goxoa da euskara, jakinduriaraz beterikoa, eta erakargarria ere bai. Izan liteke sexya ere, zergaitik ez? Beraz, erabili dezakeenak erabili dezala, eta ez dakienak nahikoa arrazoi du ikasteko.

IURRETA
Lanbide Heziketa

www.iurretalihi.eus
idazkaritza@iurretalihi.eus
Tel: 944 66 88 00

ERDI MAILA

- Administrazio Kudeaketa
- Mekanizazioa
- Ibilgailuen Elektromekanika
- Mendekotasun-egoeran dauden Pertsonentzako Arreta
- Telekomunikazio Instalazioak

GOI MAILA

- Administrazio eta Finantzak
- Automozioa
- Mantentze-lan Elektronikoa
- Produktzioaren Programazioa

HASIERAKO LANBIDE HEZIKETA

- Informatika eta komunikazioak.

AURREMATRIKULA (ezinbestekoa matrikula plaza lortu ahal izateko)
Maiatzaren 5etik 23ra arte

arizmendi
ikastola

PRO

Aurrematrikula

www.arizmendi.eus

Lan bide HEZIKETA

Maiatzaren 5etik 23ra

Izena eman!

Goi mailako heziketa zailoa

Gizarte eta kirol animazioaren irakaskuntza

Erdi mailako heziketa zailoa

Erizaintzako zaintza osagarriak

Erdi mailako heziketa zailoa

Mikro-informatika sistemak eta sareak

Erdi mailako heziketa zailoa

Osasun larrialdiak

Maialen Zuazubiskar LANTEGIAK

Euskaraldian norbanako, talde zein mota guztietako entitateek dute tokia. Baita lantoki, elkar-te, denda zein bestelako komertzioek ere. Horren adibideetarikoa bat Ona Electro-Erosion enpresa da. Enpresaren sorreratik euskara erdigunean ipini dute, 2024an Landuera batu ziren eta maiatzaren 15ean hasiko den Euskaraldian ere parte hartuko dute. ANBOTOk Ona Electro-Erosion enpresako Joseba Onandia arduradunagaz berba egin du. **Zein garrantzia du euskarak zuen enpresan?**

Aititik eta bere anaiek sortu zuten ONA Electro-Erosion enpresa. Euskara euren nortasunaren oso parte garrantzitsua zen Onandia anaientzat, eta enpresaren sorreran oso argi zuten euskarak toki nabarmena izan behar zuela. Gaur egun, identitate ezaugarri horri eutsi gura diogu, jarraipena eman gura diogu. Eta horixe da proiektu honetan sartzearen arrazoi nagusia. Ez dugu dudarik, euskara hizkuntza txikia den aldetik, gure laguntza eta konpromiso guztia behar duela.

"Euskaraz bizi garenez, euskaraz lan egin gura dugu"

JOSEBA ONANDIA ONA ELECTRO-EROSION

Enpresaren sorreratik euskara erdigunean ipinita dute Durangoko ONA Electro-Erosionen. 2024tik Landueko parte dira; orain Euskaraldiagaz bat egingo dute

Gainera, enpresan aspaldi gaude hasita euskararen aldeko ekintza xumeak egiten. Adibidez, Ikastolaren hastapenetan laguntzen ibili ginen, *Korrikan* lagun-

tzaile legez, eta gure enpresan, mundura zabaltzean, makinak euskaraz izendatu ditugu. Gauza gehiago ere egin dugu.

Hori horrela, proiektu honi

beharrezko garrantzia eman guran, euskarari loturiko batzordea sortzea erabaki genuen, eta egindako horrek lehenengo emaitzak izan ditu. Lehenengo



Ona Electro-Erosioneko Euskara Batzordea. Joseba





Onandia, Erdian.

eta behin, enpresa batzordeko kide bik adierazi dute pertsonalki proiektuaren lantaldean parte hartu gura dutela; eta, bigarrenik, langileei bidali genien ohar orokorraren ondorioz euskara gehiago entzuten hasi da enpresan. Euskaldunak zirela ez genekien kideak ere hasi dira euskaraz egiten. Sorpresa politak hartu ditugu. Beraz, gustura gaude hasierako urratsekin.

Euskaraz bizi garenez, euskaraz lan egin gura dugu, eta gure arbasoek utzitako bideari eta nahiei jarraituta, gogoz ekingo diogu erronka honi.

Zer erronka duzue etorkizunera begira?

Enpresako euskararen mapa osatu gura dugu, langileen euskara-ezagutza eta motibazioa ezagutzeko; enpresaren egoeraren oinarritzko diagnostiko bat ere egin gura dugu. Bestalde, hizkuntza-ohituretan eragin gura dugu, agiri garrantzitsuak hizkuntza bitan ipini gura ditugu langileentzat, eta enpresara datozen ikasleek praktikaldiak euskaraz izateko bidea egiten hasiko gara, besteak beste.

Euskaraldiak irauten duen bitartean,

zelan jokatu duzue lantokian?

Gure "ariguneetan" dauden oholetan, giroa sortzeko asmoagaz eta Euskaraldia berba erreferentziazat hartuta, letra bat ipiniko dugu egunero, Euskaraldia berba osatu arte.

Gainera, oholetan apuntaturiko jende kopuruaren arabera, termometro bat irudikatuko dugu, jendearen partaidetza islatuz, eta, egunetik egunera baten bat gehiago apuntatzen bada, termometroa osatuz joango gara. Bestalde, Euskaraldiak

"EUSKARAREN MAPA OSATU GURA DUGU, LANGILEEN EUSKARA EZAGUTZA ZEIN DEN JAKITEKO"

"EUSKARA HIZKUNTZA TXIKIA DEN ALDETIK, GURE LAGUNTZA ETA KONPROMISOA BEHAR DITU"

irauten duen egunetan, bakoitzak gogoko duen euskal abestia ipintzea proposatuko dugu. Euskaraldia amaitzean, abesti hauekin guztiekin *playlist*-a sortzea da gure asmoa, eta gure Intranet-ean ipintzea. Horrela, edonork eskuragarri izango du egun horietan bizitakoa, abesti horien guztien bitartez gogoratzeko.

Amaitzeko, Euskaraldiak irauten duen egunetan, batzar guztietan gutxienez lehenengo berba euskaraz egitera animatuko dugu jendea.

2024 amaieran, Landuegaz bat egin zenuten, Durangaldean lan mundua euskaratzeko sareagaz, hain zuzen ere. Zuentzat zergaitik da garrantzitsua Landuera batzea?

Guretzat nora heldu bezain garrantzitsua da bidea zelan egin, zelan eman pausoak. Hortaz, gure hautua pausoz pauso urratsak egitea da. Proiektu estrategiko lez, oinarri sendoak ipintzea da gure helburua, eta, aurrera begira, horren gainean eraikitzen duguna ondo finkatuta geratzea gura dugu. Honetarako, ezinbestekoak dira Landueren moduko proiektuek mahai gainean ipintzen dituzten baliabideak.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOR. E.

Goi Mailako

Heziketa Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- | Mekatronika Industrial
- | Automatizazio eta Robotika Industrial

Espezializazio ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa
- | Eragiketa-teknologiaren Inguruneetako Zibersegurtasuna

Oñati gestio heziketa

Goi Mailako

Heziketa Zikloak

- | Salmenten Kudeaketa
- | Administrazioa eta Finantzak

AURREMATRIKULA

**Maiatzaren
Setik 23ra**



MGEP: 664298683 // 664298704
OÑATI GESTIO HEZIKETA: 943718009



anboto
EUSKARALDIA
lehiaketa

**PARTE HARTU
ETA IRABAZI
OTZARA BAT**

www.anboto.org

ANBOTOK Euskaraldiko galdera-erantzunen lehiaketa prestatu du

Sakelakoagaz irudiko QR kodea eskaneatuta, irakurleek lehiaketako galderei erantzun ahal izango diete

Ekaitz Herrera LEHIAKETA

Zenbat dakizu Euskaraldiari buruz? Zenbat eskualdeko batzordeei buruz? Zenbat eskualdeko berbei buruz? Jolas egiteko tartetxo bat hartuta, hedabide honek lehiaketa txiki bat antolatu du. Galdera-erantzunen jokoa izango da, parte hartzaileei otzara bat irabazteko aukera eskainiko diena.

Lehiaketa bariku honetatik, maiatzaren 9tik, 25era egongo

da martxan. Bertan parte hartu gura dutenek nahikoa izango dute aldameneko irudiko QR kodea telefono mugikorrak eskaneatu, erregistroa egin ahal izateko beharrezko datuak bete eta galderei erantzutea. Hedabide honetako lantaldeak hamar galdera osatu ditu, eta irakurleen eskura ipini. Denak asmatzeko prest? Hala bada, hartu sakelakoa, sartu lotura eta zorte on!

INSTITUTUA
FRAY JUAN DE ZUMARRAGA-DURANGO

*Durangoke Institutuan,
Euskara aho eta bihotzean!*

ASEGUROAK *Euskaraldiarekin bat!*
LAUROK
z o r n o t z a, s. l.

Mota guztietako aseguruak.
Norbere neurria egokituta, etorri izaskun eta Jone bisitatzer!

Kalea, Zezilia Gallartzagaitia Kalea, 11, 48340
Tel: 946 308 875 653 545 543
Amorebieta-Etxano, Bizkaia

**SAN TROKAZ
JAIK ABADIÑO**
Maiatzaren 12tik 25era

Abadiño
Euzko Udala



KURUTZIAGA IKASTOLA

BIZITZEKO HEZI



ESKAINITZA

0 urtetik 18 urtera
bitarteko hezkuntza
eskaintza.



HELBURUAK

Ikasle euskaldun,
kritiko eta eleanitzak.



ELIKADURA

Jantoki
Eko-Arduratsuaren
ziurtagiria. Bertokoa,
ekologikoa eta sasoikoa.

Matrikulazioa
urte osoan zabalik



Galtzareta Kalea, 13
48200 Durango, Bizkaia
946 20 08 22
kurutziagaikastola.eus



Aritz Maldonado ARIGUNEAK

Ahobizi eta Belarriprestekin batera, ariguneak dira Euskaraldiko beste protagonistetarikoz batzuk. Ariguneek euskaraz berba egiteko aukera bermatzen dute une oro. Taberna eta jate-
txeek garrantzi handia dute Euskal Herrian, ekarpen ekonomikoa ez ezik sozialki ere elkartune garrantzitsuak direlako. Beraz, Euskaraldiaren moduko ariketa sozial batean ere ekarpen handia egin dezakete. Jendaurreko uneoroko hartu-emanean, hizkuntza ohiturak aldatzeko egitasmoari ekarpen handia egin diezaiokete zerbitzariak, besteak beste. Horrela uste du Ane Basabek. Elorrioko Tanger jatetxeko langilea da bera, eta aurten ere arigune legeez parte hartuko dute Euskaraldian. Bere berbetan, garrantzitsua da Euskaraldiaren txapa eramatea, lagun-garria delako euskaraz berba egin gura dutenak identifikatzeko: "Askotan inertzien menpe mugitzen gara. Haiekin beti erdaraz egin dugunez, erdarara jotzen dugu, baina izan daiteke euskaldundu izana urteekin.

Txapa eramanez gero, gogo hori ikusi daiteke".

Euskaraldia hasi aurreko azken txanpan gaude. Prest zaude?

Bai, gogotsu gaude. Gure bezeroetariko asko euskaldunak dira, baina beste batzuk ez. Askok, baina, euskaldunak izan arren erdarara jotzeko joera dute tabernan. Lan eremu honetan, aldaketa txiki batzuk lortuta helburuak beteta ditugula esan dezakedala uste dut.

Aurreko hiru edizioetan ere parte hartu duzue. Igarri duzue aldaketarik hizkuntza ohituretan?

Bai, jende baten aldetik bai. Dena dela, denbora pasatzen denean atzera egiten da batzuetan; beraz, ez dago sobran horrelako ekimenak berriro errepikatzea, aurrerapauso txiki horiek ostera eman ahal izateko. Aurrekoetan ere eman ziren, eta, beraz, posible da egitea. Aurreko urteetan hasitako bidea egiten jarraitu gura dugu. Aurreko urteetako edizioetan egin-dakoagaz pozik gaude, balorazio baikorra egiten dugu.

Hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketan, zelako ekarpena egin dezake ostalaritza sektoreak?

"Tabernan erdarara jotzen dutenen ohitura aldatzeko balio du Euskaraldiak"

ANE BASABE TANGER JATETXEA

Ariguneek euskaraz berba egiteko aukera bermatzen dute eta horrek egiten ditu garrantzitsu, bai egunerokorako eta baita Euskaraldirako ere. Elorrioko Tanger jatetxeak Euskaraldiko laugarren ediziorako izena eman du arigune legez

Herritarrek sozializatzeko eta harremantzeko duten gune nagusia da ostalaritza, eta ostalariok horren parte gara. Hortaz, gugaz euskaraz egitea garrantzitsua dela uste dut. Norberak ostalariagaz euskaraz

"HERRITARREK SOZIALIZATZEKO DUTEN GUNE NAGUSIA DA OSTALARITZA"

egiterakoan, euskarak duen berezko balio hori oraindino gehiago handitzen da, euskarak irabazi egiten du. Zure esparrutik harago ere, kalean pauso hori ematen duzulako; ez da bakarrik lagun artean edo familian euskaraz egin duzula, kalean ere egin daitekeela ikusi duzu. Egunerokorako gauza bat izan daitekeela ikusten da horrela, eta hori garrantzitsua da, normalizatu egin behar dugu, ikusi egin behar da, egu-

nerokoan euskaraz aritzea egingarria dela. Tabernetan jende asko mugitzen da, eta, beraz, oso garrantzitsua da horietan ere euskaraz egin daitekeela ikustea. Adibidez, jende batek erdarara jotzen du barran eskatzerakoan, eta Euskaraldia oso baliagarria da ohitura horiek aldatzeko. Tabernetan, adibidez, Euskaraldian zehar zerbitzariok txapa ipinita dugula ikusita, bezeroa jakitun da badakigula euskaraz,

Durangoko Udala

EUSKARALDIA

Elkar mugituz egingo dugu

Animatu eta egin bat euskararekin!

-rekin bat!

durango
zurekin, kontigo



edo behintzat prest gaudela euskaraz berba egiteko. Horrek lagundu egin dezake harremantzeko modua aldatzen.

Lehenengo berba euskaraz egiteak eragina du, beraz. Zelan animatuko zenituzke elorriarrak Euskaraldian parte hartzera?

Uste dut sarri gertatzen dela inertzietara lotuta jarraitzea. Adibidez, ez dakigu kalean betidanik ezagutzen dugun pertsona batek zer euskara maila duen edo zein hizkuntza ohitura duen. Eta horrek atzera botatzen gaitu. Betiko inertzietara lotzen garela esango nuke; jende bategaz beti euskarara jotzen dugu berba egiteko, eta beste bategaz, oster, beti gaztelaniara. Eta bat-batean ikusten duzu horietariko batzuk txapa daramatela, marrazkian ahoa zein belarria, eta zeure artean diozu: 'aiba, ohitura aldatu dezaket'. Azken batean, kliseetara eta betiko kontuetara jotzen dugu, esan dudan moduan: beragaz beti erdaraz egin dudanez, erdalduna da. Baina, beharbada, euskalduntze bidean dago, edo bide hori eginda du jada. Uste dut ga-



Ane Basabe, Tanger kanpoaldean.

"INERTZIEN MENPE MUGITZEN GARA; EUSKARAGAZKO GOGOA ERAKUSTEN DU TXAPAK"

rrantzitsua dela kalean ikustea jendea zein neurriraino dagoen euskaraz egiteko prest.

Dudatan ibiltzen gara, normalean den moduan, beti ez dakizulako jendeak zein ibilbide edo ohitura duen. Hortaz, jen-

de askogaz erdarara jotzen da beti. Eta ez da aurreiritzien-gaitik bakarrik; izan daiteke beti erdaraz egin dugulako. Baina, agian, pertsona hori euskaldundu egin da, eta ez dakizu. Txapa ipinita badu,

oster, bidea hasi duela edo egiten dabilela ikusi dezakezu, eta horrek erraztu egiten du aldaketa. Beraz, garrantzitsua iruditzen zait txapa aldean eramatea eta jendeak txapa ikustea.

NEVERS
IKASTETXEA

Elkar mugituz egingo dugu!

Euskaraldia 2025

Bruno Mauricio Zabala Kalea, 6
48200 Durango, Bizkaia
 neversikastetxea.com
 946 81 09 46
 @neversikastetxea



Aitziber Basauri IKASTETXEAK

Larrea eskola, Andra Mari ikastola, El Carmelo eta Karmelitik Amorebieta Etxano ikastetxeak, Urritxe institutua eta Lauaxeta. Goldatzen elkarteak sei zentroetako gurasoak batzen ditu, euskararen erabileran eragitea helburu dutela. Zalaoa Ibeasek (Zornotza, 1981) eta Asier Bilbao (Zornotza, 1976) erantzun die ANBOTOren galderei.

23. Korrikagaz batera hasi zineten elkarregaz bidea egiten.

Asier Bilbao: Ikastetxeetik kalejiran jaitsi ondoren, Herriko Plazan ekitaldi labur eta xume bat egin genuen elkarregaz, gero Korrikagaz bat eginez.

Zalaoa Ibeas: Oso erantzun polita izan zen eta zapore gozoagaz amaitu genuen. Horrela eman genituen lehenengo pausoak. Denok genuen euskaragazko ardura, zelan bultzatu euskara hezkuntza komunitatean.

A.B.: Ume bakoitza zentro batean egon arren, herria denen eremua da, eta euskara denok biltzen gaituen edo bildu gaitzakeen elementua.

Euskararen erabileran eragitea duzue helburu nagusi?

"Euskararen erabilera bultzatzea dugu helburu"

ASIER BILBAO RUI WAMBA ETA ZALOA IBEAS DE LA CRUZ GOLDATZEN ELKARTEA Urtea bete da Goldatzen jaio zela, Zornotzako sei ikastetxeetako gurasoak batzen dituen elkarte. Euskararen Aldeko Ginkana antolatu dute Euskaraldiagaz bat eginda



Bilbao eta Ibeas, Eneko Aldazabal, Aida Falces, Gotzone Bilbao, Ruben Iñiguez, Nerea Garcia eta Iñaki Kortabarria.

Z.I.: Erabilera bultzatzea eta kontzientzia sortzea, norabide bitan. Batetik, bakoitzak bere ikastetxean hori guzti hori elikatzen jarraitzeko aukera ematen digu, zelanbait hezkuntza komunitatea saretuz. Garrantzitsua delako ikastetxe bakoitzak bere dinamikak eta ekintzak aurrera eramatea. Bestetik, ikuspegi bateratu batetik ere eman dezakegu bultzada. Uste dugu ikastetxeetatik harago ere badugula ardura bat, herri mailan.

A.B.: Osterantzean, zeozer akademikoa dela ematen du, espazio konkretu batera mugaturikoa. Ate horiek zabaldu behar dira eta leku berriak inbaditu.

Zelakoa da euskararen erabilera Zornotzan?

A.B.: Sentsazio kontrajarria sortzen zait. 10 urtean tendentzia negatiboa izan delakoan nago, baina azken datuek diote euskararen kale erabilera igo egin dela. Baliteke euskaldunok atentzio gehiago ipintzea datu negatiboei berez sortzen diren lora-txo horiei baino.

Z.I.: Gazteen artean eta guraso gazteen artean igo ei da euskararen erabilera. Dena dela, Asie-



BRUSS
Euskara batzordea

EUSKARALDIA-REKIN BAT



EUSKARALDIArekin BAT!

Zaldibar Elizateko Udala
Tel.: 946 827 016 · www.zaldibar.eus





regaz bat nator. Orokorrean egoera ez da gura genukeen besteko ona, zoritxarrez.

Premiazkoa da lanean jarraitzea.

A.B.: Datuak ez dira onak, orain artekoak baino hobeak baino. Presioa egin ezean atzerantz egingo dugu. Euskarak geroago eta esparru gutxiago betetzen du. Beraz, espazioak sortu behar dira. Adibidez, Interneten euskara presente dago, baina, gaztelaniaz edo ingelesagaz alderatuz gero, presentzia txikia du. Kanpotik modu jarraitu eta aktiboan hauspotu ezean, esparruak galtzen joatea izango da joera.

Z.I.: Gaur egun badugu abantaila bat. Gure esparruari dago-kionez, ezin dugu arazoaren muina ezagutzen kokatu. Gaztetxoek eta umeek badakite euskaraz, eta Zornotzan D eredua baino ez dugu. Ba, datorren erroka handia da: oinarri bat badugu, ezagutza bat badago, zer egin erabileran igarri dadin? Zelan sortu herri euskaldun bat zeinetan benetan ehuneko ehunean euskaraz bizitzeko aukera egongo den? Badago indargune bat: ezagutza maila. Dena dela, batzuetan hizkuntzaren ezagu-

tzak ez du erabilera bermatzen. Hor eragin behar dugu.

Euskaraldia tresna aproposa izan daiteke horretarako.

A.B.: Bai. Euskara elkarrizketagai hartzen du, gainera. Batzuetan gaiari buruz berba egite hutsa ere positiboa da. Ez gara bakarrik ekimenean parte hartuko duten pertsonen ari; kanpotik bada ere, beste askok ere ikusiko dute. Moduren ba-

tean, ausartagoak izateko aitzakia sortu daiteke. Zalantzarik barik, sistema bat ez da mugituko eragin ezean. Egiten ez dena ez doa inora. Egiten den guztiak batu egiten du. Kimika txikiak, ezagutza, sare berriak eta abar sortzen dira beti.

Z.I.: Egitasmo guztiak ondo etorriak dira, beti dira lagungarriak. Kontua da ez dadila geratu lanean behingo zeozer lez. Eki-

menak gorpuztu egin behar dira, bitarteko gehiagorik, oso gauza sinboliko eta folklorikoa bihurtzeko arriskua dagoelako.

Euskaraldiaren barruan egin duzue hurrengo hitzordua, maiatzaren 17an.

Z.I.: Bai, euskararen aldeko ginkana erraldoia antolatu dugu. Ia 300 ume eman dute izena, eta herri osora zabalduko den jarduera izango da. Egun polita izango dela uste dugu eta herria kolorez jantziko dugu.

Aurreikusi duzue beste ekintzarik?

Z. I.: Ginkana amaitzean, datorren ikasturte hasierarako prestatuko dugun ekitaldian parte hartzera deituko dugu. Oraingoz, sorpresa gordeko dugu.

Euskaraldia amaituta, lanean jarraituko duzue. Zein da erroka?

A.B.: Egunk egun joango gara bidea egiten.

Z.I.: Indarrak neurtu behar ditugu. Ginkana antolatzeak lan handia suposatzen digu; 90 bat boluntario egongo dira lanean. Inertzia positiboak sortzen badira eta engranajeak funtzionatzen badu, erroka euskaraz bizitzea izango litzake. Epe laburrera, hekuntza komunitatea honen bueltan saretzea ere bai.



23. Korrikagaz batera antolatutako ekitaldiaren irudi bat. GOLDATZEN ELKARTEA

Euskararen ginkana erraldoia

Jolasa eta euskara uztartuta, 4tik 17 urtera arteko 300 bat ume eta gazte batuko ditu euskararen aldeko ginkana erraldoiak, maiatzaren 17an, Zornotzan. Zelaetan hasiko da, 11:00etan, eta bi-hiru ordu iraungo du. Herrian zehar bost gune egokitu dituzte eta bakoitzean beste horrenbeste proba beteko dituzte mezu sekretua argitu arte. Adinaren arabera banatuta, bost lagunek taldetan parte hartuko dute.

Umeek helduren batez joan beharko dutenez, gutxienez 600 bat lagun elkartzea aurreikusi dute. Ginkanan parte hartzeko aukerarik ez dutenentzat tailerrak egongo dira Zelaetan.

MACHO GRITA

Alberto San Juan
y La Banda

Maiatzak 18, igandea
19:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021 - sanagustin@durango.eus

San Agustín
KULTUR
GUNEA

Han, hemen eta mkd-n euskaraz!

ibaizabal
IKASTOLA

Intxaurrondo kalea, 54 DURANGO (Bizkaia)
idazkaritza@ibaizabalikastola.eus
946 215 877
ibaizabalikastola.eus

IKASTOLA
BATXILERGOA ETA LANBIDE-HEZIKETA

OSTATUA
errotaostatua.eus

GIMNASIOA
kirolerrota.eus

KAFETEGIA
ATERPETXEA
ARIGUNE UNEORO

EUSKARALDIA
Elkar mugitu egingo dugu

Honako hauek dira eskualdeko herrietan sortu diren hamaikakoak: Abadiñokoa, Durangokoa, Elorriokoa, Iurretakoa, Zaldibarkoa eta Zornotzakoa

Egun gutxi batzuk baino ez dira falta 2025eko Euskaraldiari hasiera emateko. Maiatzaren 15etik 25era izango da Euskaraldiaren laugarren edizioa. Azken hileotan, Euskaraldiko hainbat talde sortu da herrika berau antolatu eta ariketa sozial honi ahalik eta bultzadarik handiena emateko. Taldeak sortu direnetik, dozenaka eta dozenaka lagun lanean buru-belarri dabilta eskualdeko herrietan.

Laugarren edizioa duen Euskaraldiak nobedade bat ere badu, hamaikakoaren figura. Hamaiakoa osatzen duten lagunak Euskaraldiaren "enbaxadore eta konplize" dira, eta dagoeneko eman diote hasiera hizkuntza ohiturak aldatzea helburu duen mugimendu erraldoiari. Hamai-

kakoa osatzen duten kideek euskararen erabileraren inguruko erabakiak hartzea, ingurukoei erabaki horien berri ematea, eta horiek egunerokoan gauzatzen

ahalegintzeko erronka onartzen dute. Horrez gainera, herritarrei Euskaraldian parte hartzeko gonbit egitea ere bada euren eginbeharretariko bat.



Elorrioko hamaikakoa.



lurretako hamaikakoa.



Zaldibarko hamaikakoa.



Abadiñoko hamaikakoa.



Durangoko hamaikakoa.



Zornotzako hamaikakoa.



Mallabia

Tel.: 943 171 461
www.mallabia.eus

aek
euskara praktikoa

Euskara eroso bizitzeko

Maila guztiak, Berbalagun,
Mintza taldeak...

Durangon, Zornotzan, Elorrión,
Berrizen eta Abadiñon.



ZORNOTZA
CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL
LANBIDE HEKIDETASO
HEKIDETASO INTEGRATUA

2025eko Maiatzaren 15etik 26ra
EUSKARALDIA
*Elkar mugitu
ezingo dugu*

946 730 251 | info@pzornotza.h.eus | www.pzornotza.h.eus | @zornotzap | f CFP Zornotza LH

Fp   **Europar Batasunak**
kofinantzazuta **lanbide** LANBIDE HEKIDETASO INTEGRATUA

AENOR ISO 9001 **AENOR** ISO 14001 



EUSKARALDIAREKIN BAT!


IZURTZA
 UDALA

Tel: 946 813 548
www.izurtza.net

Maiatzak 9tik 18ra

2025

MAIATZAK 9

19:00 "Hil da jainkosa"

21:00 Lekittoko deabruak

MAIATZAK 10

17:30 Esan Ezin (Errekondo, eguraldi txarra bada
Errose Bustintza kultur etxean)

19:00 Andoni Ollokiegi (Arritoki)

20:30 Sakamantekas (Plazan)

MAIATZAK 11

13:00 Tío teronen semeak (Plazan)

18:00 Playlist (Errose Bustintza kultur etxean)

MAIATZAK 14

18:00 Elkarrizketa musikatua, Janus Lester (Jokin)
*(Angurreta Harrobian, eguraldi txarra bada
Errose Bustintza kultur etxean)*

MAIATZAK 15

19:00 Futbolistok (Zuhaitz Gurrutxaga)
(Errose Bustintza Kultur etxean)

MAIATZAK 16

17:00 Saroa Bikandi (Errose Bustintza kultur etxean)

20:00 Rukula (Errekondon)

MAIATZAK 17

19:00 "Kantuez, kontuez...urtea bota"
(Angurreta harrobian. Eguraldi txarra bada elizan).

MAIATZAK 18

10:00 Azoka eta VIII. Euskadiko
Azpi Gorri txapelketa

11:00 Talo eta artile tailerrak
(Alluitz Natura) (Frontoian)

12:00 Andra Mari dantza taldeko
ume eta gazteen dantza saioa

Mañaria Kultur astea



"Asko eskertzen dut niri euskaraz berba egitea"

AGURNE AZKARATE GARTZIA DENDARIA

2018an lehen Euskaraldia egin zenetik parte hartu du ariketan, Belarriprest rolean. Euskararen erabilera indartzeko ekimenean parte hartzea garrantzitsua dela uste du

Aitziber Basauri KOMERTZIOAK

Lehenengo Euskaraldia egin zenetik, Belarriprest pegatina itsatsita dago Durangoko Oliver arropa dendaren erakusleihoan. Bezeroek euskaraz egin diezaioketela erakutsi gura du Agurne Azkaratek (Durango, 1970), nahiz eta elkarrizketaren momenturen batean gaztelaniara pasatu. Hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa praktikoa parte hartzeraren animatu du, "euskararen erabilera indartu dadin eta hizkuntza galdu ez dadin".

Hasieratik parte hartu duzu Euskaraldian. Oraingoan ere eman duzu izena. Zergaitik da garrantzitsua parte hartzea?

Garrantzitsua da gogorazteko euskara erabili behar dugula, euskaraz berba egiten jarraitu behar dugula. Belarriprest modura parte hartu dut beti, eta aurten ere hautu horixe egin dut. Bezeroak euskaraz zuzentzen dira nigana, baina heltzen da momentu bat zeina ez naizen gai elkarrizketa euskaraz jarraitzeko eta gaztelaniaz jarraitzen dut. Lehenengo Euskaraldia egin zenean, denda Arigunea izan zedin ere eman nuen izena.

Zerk animatu zintuen Euskaraldian parte hartzea?

Dendak Bai elkarteak kide legez hainbat ekimenetan parte hartzeko aukera eman digute beti.

Eta Euskaraldian parte hartzeko proposamena egin zidatenean segituan eman nuen izena. Komertzio zein herri legez onuragarriak diren ekimen guztietan parte hartu behar dugula uste dut; oraindino gehiago herritarrek eta dendariak batzen dituen ekintza bada.

Zelakoa izan da orain arteko esperientzia?

Poz-pozik nago. Lehenengo Euskaraldia egin zenetik, Belarriprest naizela adierazten duen pegatina dut ipinita erakusleihoan. Herritarrek, bezeroek, euskaraz berba egin diezadaketela ikusi dezaten, nahiz eta gertatu daitekeen ni momentu-

ren batean gaztelaniara pasatzea. Dendan asko berba egiten da euskaraz. Alabek Kurutzia ikastolan ikasi dute eta ditudan bezero askok ikastolan dituzte seme-alabak. Bada, Belarriprest nintzela ikusi zutenetik, euskaraz berba egiten didate, nahiz eta nik gaztelaniaz berba egin. Seme-alabak hazten doaz, baina jarraitzen dute dendara etortzen, eta euskaraz egiten didate. Ezagutzen nautenek euskaraz egiten didate. Oso esperientzia positiboa izan da beti.

Zure egunerokoan, zelan laguntzen dizu Belarriprest izatea?

Alabek euskaraz ikasi dute eta euren artean euskaraz egiten dute. Beti izan dut arantzatzat bat: alabekin elkarrizketa bat euskaraz jarraitzeko gaitasunik ez izatea. Aditzak dira nire ahulgunea. Elkarrizketa ezin amaitu egoten naiz, aditz faltan. Hanka sartzeko beldur horregaitik ere bada. Euskara ikas-taroetara joan naiz, baina ia ezinezkoa iruditzen zait. Dendara gaztetxoak sartzen direnean, euren euskaraz zuzentzeko ohitura dut; lehenengo berba beti euskaraz egiten diet. Eta



Agurne Azkaratek nerabeentzako arropa saltzen du

umeekin euskaraz jarraitzen dut, errazagoa egiten zait, oraindino ez baitute trebetasun hori hizkuntzagaz. Gurasoekin, helduekin, arazo gehiago dut.





Durangoko Oliver dendan.

Belarriprest izateak trebetasuna hartzen laguntzen dizu?

Bai. Bezeroek badakite ulertzen diedala eta ahal dudanean neurrian euskaraz jarraituko dudala.

Uste duzu garrantzitsua dela Euskaraldian parte hartzea?

Jakina! Lehenengoz egin zenean oso ekimen polita iruditu zitzaidan. Belarriprest ginenon artean

euskaraz egiten ahalegintzen ginen, eta gura baino gehiagotan gaztelaniara pasatzen ginen arren, euskarari eustea lortuko genuela esaten genion elkarri. Harrezkero, urtero parte hartu dut. Uste dut Durangon nahikotxo berba egiten dugula euskaraz; batez ere, gazteen artean entzuten dut. Baina, egia esan, inguruko herrietako bezeroek euskaraz gehiago egiten dute.

Uste duzu Euskaraldiak baduela eraginik gure eguneroko hizkuntza ohituretan?

Bai. Euskaraldia hurbildu ahal kontzientzia hartzen dugula esango nuke; euskaraz gehiago berba egiten ahalegintzen gara, eta igartzen da. Baina behin ariketa amaituta, ahaztu egiten dugu apur bat. Gaztelaniaz berba egiteko ohitura dugunok errazago jotzen dugu horretara. Egunerokoan ahalegintzen zara euskaraz egiten? Konpromiso hori duzu?

Bai. Dendan asko egiten dut euskaraz, ahalegintzen naiz. Kanean gutxiago. Ikastolako beste gurasoekin euskaraz egiten dut. Momenturen batean, elkarriketaz jarraitzeko modurik

ez dudanean, ni gaztelaniaz hasi arren, eurek euskaraz jarraitzen dute. Haiekin badut lotura hori. Hizkuntza bitan egindako elkarriketa da. Asko eskertzen dut niri euskaraz egitea. Dakidan hori mantentzen laguntzen dit, euskara ez ahazten. Ahal dudanean neurrian, euskara gehiago ikasten ere laguntzen dit. Gertukoenekin lotsa gutxiago ematen dit euskaraz berba egitea.

Kosta egiten da jauzia egitea? Lotsari aurre egin eta euskaraz egitea? Aurrean duzunak euskaraz oso ondo egiten badu, kosta egiten

"BELARRIPREST IZATEAK DAKIDANA MANTENTZEN LAGUNTZEN DIT, EZ AHAZTEN"

"AURREAN DUDANAK EUSKARAZ OSO ONDO EGITEN BADU, KOSTA EGITEN ZAIT LOTSA KENTZEA"

zait lotsa kentzea. Hanka sartzeko beldurra izaten dut, jakin arren ez didala barrerik egingo. Baina nire antzera egiten duen norbaitegaz banago, ez dit ardura. Urte batean, Euskaraldia-ren harira, Belarriprest ginen lagun talde batek euskaraz berba egitea erabaki genuen. Aditxategaz asmatu ez arren, ez zigun ardura izaten elkarri galdetzea. Baina ariketa amaitzean uzten joan ginen. Gaztelaniara bueltatzen ginen. Hizkuntza ohiturak dira eta gatz da aldatzea. Gazteen artean errazagoa dela uste dut. Herriaren arabera ere bada. Ilobak Izurtzako herriko taberna dauka eta oso bezero gutxi eskatzen du gaztelaniaz. Durangon desberdina da. Mañarian ere denek egiten dute euskaraz, eta han euskaraz egiten dut.

Merezi du ahalegina egitea?

Bai. Gura nuke euskaraz erraz berba egin. Umetan dena euskaraz egiten genuen, aita Gazteluakoa (Abadiño) zen. Baina eskolan debekatuta genuen euskaraz berba egitea.

Egunen batean Ahobizi izango zara? Igual bai. Ikasi egin beharko nuke, baina batek daki!

BANAKAKO BISITAK
 Eskatu zure hitzordua:
 94 681 00 50 edo
sanjose@durangojesuitak.org
 (0 urtetik 18 urtera)

www.durangojesuitak.org •

Ayarza

1949

Ayarza gozotegia EUSKARALDIAREKIN BAT

@pasteleria_ayarza_1949
 Luis Urrengoetsa, 11 - Zornotza
 Tel: 94 673 02 42
 Montevideo, 10 - Durango
 Tel: 94 403 54 19

2025EKO MAIATZAREN 15ETIK 25ERA

EUSKARALDIA

Elkar mugituz egingo dugun

Aukeratu zure rola!
IZEN EMATEA: euskaraldia.eus



"Hitanoaren soinua ederra da, hurbilekoa"

LEIRE ARRIETA BARRUETA ETA EIDER GALLASTEGI ARANA HIKA TALDEA

Kurutziaga Ikastolako hainbat langile maiz batzen da hitanoa praktikatzeko. Sarritan egitearen poderioz, euren artean hika aritzea geroago eta normalizatuago dute

Joseba Derteano HITANOA

Kurutziaga ikastolako langile talde batek hitanoa biziberritze-ko eta euskararen aldaera zaharrak lantzeko pausoa eman du: astero batzen dira hitanoa praktikatzeko. Leire Arrieta eta Eider Gallastegi talde horretako kideak dira.

Zelan sortu zenuten Hika taldea?

Leire Arrieta: Orain urte bi, Euskaraldia amaitzeagaz batera, ikastolan hikan egitea falta zela pentsatu genuen. Orain urte asko, ikastolako maisu eta andereñoek bazuten hika egiteko ohitura, eta guztiz galduta zegoen. "Ikastolan hika barriro erreku-perau biher dxunau", esaten

genuen geure artean, neskok kasu honetan. Txapa propioak egin eta eguen eguerdietan batzen hasi ginen, hitanoa geure artean praktikan ipintzeko. Batzuetan, eguraldi ona egiten badu, parkean geratzen gara bazkaltzeko eta mintzapraktika egiteko jolasen bitartez. Zuka egitera ohituta, hasieran gatxa izan zen trantsizio hori egitea.

"ZUKA EGITERA OHITUTA, HASIERAN GATXA IZAN ZEN TRANTSIZIO HORI EGITEA"

Eider Gallastegi: Honen hari-ra, beste ekitaldi batzuk ere egin ditugu. Adibidez, taldetxo batek Hitzez eta Ahotsez ekimenean parte hartu genuen gaia 'umorea' izan zenean, eta gutariko batzuk hika hasi dira poteoan. Hileko bigarren egunean egiten dugu, 19:30ean, Arkarazo tabernatik hasita. Erdu!

Hika berria da zuentzat ala txikitik ezagutu duzue?

E.G.: Etxean ez dut entzun. Amamak bere ahiztekin egiten zuen, baina gugaz ez. Nire bikotekidea atxondarra da eta aitagaz egiten du. Beragaz praktikatu izan dut. Baina batez ere talde honetan nabil hika ikasten.



Leire Arrieta eta Eider Gallastegi.

L.A.: Nik txikitatik entzun dut. Amak hika egiten zuen bere ahiztekin baserrian, eta ia egunero egoten ginen baserrian. Ikastolan jubilatuta dauden lankideen artean ere beti entzun dugu hitanoa euren artean. Niretzat ezagunagoa izan da.

Hitanoa aldatu egiten da herri ba-

tetik bestera. Zuek zer motatakoa egiten duzue?

E.G.: Bakoitzak berea. Etxe bakoitzean desberdin egin izan da. Hor ibiltzen gara batzuetan gidetan begira. Hitanoaren inguruko hainbat aplikazio dago. Baina elkarregaz ikasten dugu gehienbat: "Hik zelan esaten don

2025EKO MAIATZAREN 15ETIK 25ERA

EUSKARALDIA

Elkar mugituz egingo dugu

MAIATZAK 15
EUSKARALDI HASIERAKO EKITALDIA
19:00 Txapa banaketa. Banderabakoak salgai.
OLAKUETA PLAZA

MAIATZAK 16
TAILERRAK HAUR ETA GAZTEENTZAT
17:30 Berriz EUSKARAZ NAHITAGO poltsak/txapak
OLAKUETA PLAZA

MAIATZAK 17
17:00 EUSKape ihes gelak
OLAKUETA PLAZAN
19:00-20:30 EUSKARALdiskoa
OLAKUETA PLAZAN

MAIATZAK 24
EUSKARALDIA BERRIZKO GAILURRETARA
9:00 Amaraune mendi taldearekin
ELIZONDO PLAZAN

Bidali euskara@berri.eus helbidera EUSKARALDIAN zehar ateratako argazkia (kuadrillan, etxean, lanean, kalean...) edo zure testigantza eta EUSKARALDI materialaren zozketan parte hartuko duzu.



Elkar mugituz egingo dugu

EUSKARALDIAREKIN!

Iurreta
Elizateko Udala



hau?", eta denon artean ahalegindu gutxi gorabehera bateratzen.

L.A.: Geure artean hitanoa edo hizkera normalizatu dugunean, bakoitzak beretik egiten du. Hori aberatsa da.

Apurka geroago eta naturalago jotzen duzue hitanora zuen artean?

E.G.: Bai, orain pasilloan elkartu eta hiketan egiten dugu batzuetan. Lehen, ez zitzaigun natural irteten.

L.A.: Orain batzuetan naturalago irteten zaigu hikan zukan baino.

Taldetik kanpora, zer hartu-eman duzue hitanoagaz?

E.G.: Esan dudan moduan, etxean bikotekideagaz praktikatzen hasi naiz. Semeekin ere ibiltzen gara apurtxo bat. Gero, Arrazola partean ibiltzen gara aisialdian, eta han bai, han entzuten da hitanoa, baina eurek niri ez didate hiketan egiten. Batzuetan esaten diet brometan: "Egin hika, ikesten nabilek eta praktiketie biher joat".

L.A.: Durangon eta inguruetan hikari buruz antolaturiko ekimenetan parte hartu izan dugu. Horrelako ekimenetan bat egin-dako jendeagaz ia berez jotzen

da hitanora. Amagaz ere egiten dut batzuetan.

Zelan ikusten duzue hitanoa Durangon?

E.G.: Oso lagunarte konkretue-tan egiten da. Galtzen dabil eta pena da. Horregaitik gabiltza gu hemen, apur bat berreskuratu guran. Beste jende bat ere badabil kontzientzia hori hartzen, baina orokorrean gutxi entzuten dela esango nuke, toki konkretu batzuetan.

L.A.: Eta adin batetik aurrera gehiago, baina gazteen artean gutxi. Hitanoa euskararen beste ondasun bat da eta interesgarria litzateke ikastetxeetan ekimenak egitea berau indartzeko.

E.G.: Euskararen egoera ez da on-ona. Gazteek gaztelaniara jotzen badute, oraindino gatxagoa da hitanoa bultzatzea, baina interesgarria litzateke hitanoa ikasleen artean ezagutaraztea. Eurentzat gauza arrotza ez izateko.

L.A.: Gutxienez gu geure artean gabiltzanean entzuten dute hitanoa.

Hitanoko zein aditz edo esamolde gustatzen zaizue?

L.A.: Berba edo esamolde bat bat baino gehiago, hasieran aditz batzuk sartzen hasi ginenean, geure artean zenbat barre egiten genuen gogoratzen dut. Batek 'jonan' esan eta besteak 'jonatan' eta antzerakoak. Niri asko gustatzen zait hitanoaren soinua; hurbilekoa egiten zait. Inguru-

"DURANGON LAGUNARTE KONKRETUETAN EGITEN DA HITANOA, GALTZEN DABIL"

koen konfiantza eta hurbiltasuna ematen du.

Leire, Durangoko Azokaren harira egindako Hikadromoan izan zenuen. Zelako esperientzia izan zen?

L.A.: Oso polita. Euskal Herri osoko jendeagaz, hitano desberdinak entzun genituen. Hitanoz egiteko gogoia ikusten zen.



Hika taldeko kideak, Kurutziaga ikastolan.

% 100 URA GARA

*Bizkaia etorkizunera egokituta zainduz,
inbertituz eta mantenduz.*



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciodeaguas.eus



"Herritarrak euskara ikastera animatzen ditut"

KAOUTAR DOURHAMI ZALDIBARKO HAMAIAKOKO KIDEA

Belarriprest txapa aldean ipinita ibiliko da, eta herrikideei euskaraz egin diezaioten eskatu die; "Berba eta esapide berriak ikasi gura ditut apurka-apurka", esan du

Ekaitz Herrera ONGI ETORRI

2009an etorri zen Marokoko Safi hiritik Zaldibarrera, eta bertan bizi da Karim senarragaz eta 14, 11 eta 5 urteko seme-alabekin. "Benetan pozik bizi naiz Zaldibarren. Oso herri lasaia da, asko gustatzen zait. Gainera, herrikideak oso lagunkoiak dira", esan du. Dourhami literatura arabiarrean lizentziatua da eta lau hizkuntza dakizki: arabiera, gaztelania, frantsesa eta ingelese. Euskara ikasteko ikastaroak egin ditu eta apurka-apurka bere inguruko elkarrizketen ideia nagusia ulertzea lortu du. Gainera, herriko beste hainbat emakumegaz batzen da barikuetan, mintzapraktika egiteko.

Arabiera, gaztelania, frantsesa eta ingelese berba egiten dituzu. Horiek guztiak nahikoa ez, eta euskara ikasten ere hasi zara. Zergaitik?

Umeengaitik hasi nintzen euskara ikasten. Gogoan dut, behin, semeetarik batek etxeko lanak ekarri zituela eskolatik. Euskara ariketak ziren, eta, jakina, ez nuen ezer ere ulertzen. Momentu horretan euskara ikasi behar nuela erabaki nuen. Berba batzuk, esapide batzuk, has-teko. Gerora, udalak euskara ikasteko oinarritzko ikastaro batzuk antolatu zituen eta horietan izena ematea erabaki



Kaoutar Dourhami orain 16 urte etorri zen Zaldibarrera bizitzen.

nuen. Ez nuen birritan pentsatu. Nik eta senarrak, biok, eman genuen izena ikastaroetan.

Eta, halako batean, Zaldibarko Euskaraldiko hamaikakoaren parte izatera igaro zara.

Harriduraz hartu nuen hamaikakoaren parte izateko proposamena. Izan ere, lotsa moduko bat sentitzen nuen, jendeak zer pentsatuko ote zuen edo. Idokia Marinek animatu ninduen ha-

maikakoan parte hartzera, eta pausoa ematea erabaki nuen. Pozik nago erabakiagaz.

"BELARRIPREST NAIZ; ZALDIBARTARREK EUSKARAZ EGIN DIEZADATEN GURA DUT"

Zergaitik da Euskaraldia inportantea zuretzat?

Zaldibarren bizi garelako eta herritarrik gehienek euskaraz egiten dutelako. Euskara ikasi behar dugu hemen bizitzeko, hemengo bizimodua, hartu-emanak, elkarrizketak ulertzeko.

Gaur egun, herritarren arteko euskarazko elkarrizketak entzuten dituzunean, ideia nagusia ulertzeko gai zara.

Bai. Ikastaro bi egin nituen Pako Aristi idazleagaz. Oso esperientzia aberasgarriak izan ziren. Pakok oinarritzko lexikoa, aditzak, ordutegiak eta esapideak erakutsi zizkigun, eta, horrez gainera, ikastaroetatik kanpora euskaraz beldurrik barik berba egin behar genuela esan zigun. Hasieran, hori egiteko lotsa sentitzen nuenez, seme-alabekin hasi nintzen praktikatzin. Barre egiten zidaten: "Ama! Hori ez da horrela esaten; beste era honetara esaten da!", eta halakoak. Zuzenketa horiek buruan sartuta ditut dagoeneko. Horrez gainera, Berbalaguneko Nuria-gaz euskara praktikatzeko saioak egin izan ditut barikuro-barikuro. Susana ere egon da gugaz euskara ikasten, Espainia hegoaldeko emakumea. Topaketa horietan, berba, berba eta berba egitea izan da funtsa, beldurra kentzea. Orain, topaketa horiek eten behar izan ditut seme txikiari heziketa kontu batzuekin laguntzeko, baina egoera hobetzen denean, berriro ere jarraituko dut euskara ikasten.

Zer esan dizute herritarrek, bizilagunek, zu euskara ikasten eta Euskaraldian parte hartzen ikusita?

Mundu guztiak animatu nau euskaraz trebatzen jarraitzera, eta hori ez da ohikoa. Izan ere, emakumea naiz, eta, horrez gainera, marokoa. Hemen, da-

kizuenek, etorri berri guztiok ez dugu berdin konektatzen, baina gure kasuan zerbait naturala izan dela iruditzen zait. Zaldibarko herritar askok eza-gutzen du gure familia, bai betidanik hemen bizi izan direnek eta baita hona bizitzera etorri berri direnek ere. Nire jatorrizko herrialdean ere beti bizi izan naiz horrela. Ikasketak egin ditugu, eta mutil zein neska izan, elkarrizketak harremandu izan gara beti.

Izan ere, hizkuntzak bene-benetan atsegin dituzula dirudi, literatura arabiarrean lizentziatua zara eta.

Irakurtzea eta hizkuntzak ikastea asko gustatzen zait. Hala ere, azkenaldian, ezin izan dut gura beste irakurri, nahikoa lan izaten dut-eta seme txikiagaz! Egundoko energia dauka! (barrez) **Euskaraldia datorren egunean hasiko da. Zelan biziko duzu?**

Belarriprest izango naiz, eta halantxik jarraituko dut euskaraz hobeto berba egitea lortzen dudana arte. Maiatzaren 15etik aurrera txapa soinean ipini eta euskara gehiago ikastera irten-go naiz, esapide eta berba gehiago ikastera. Niri euskaraz egitea eskatu gura diet zaldibartarrei. Egin diezadatelara euskaraz; gustura entzungo diet, eta apurka-apurka hizkuntzan trebatzea lortuko dut.

Seguru elkarrizketa hau Zaldibarko eta Durangaldeko herritar askok irakurriko dutena. Zein mezu helarazi gura diez irakurleei?

Euskara ikastera animatu gura ditut guztiak. Gatxa da hasieran, baina berbak ikasten zabiltzala igartzen ditzunean, errazagoa da dena. Berbak behin eta berriro entzuten dituzunean, barneratu egiten dituzu. Euskara ikasi behar dugu, eta Zaldibarren bizi garenek, euskaraz berba egin.



**BAREFOOT
OINETAKOETAN
ESPEZIALIZATUTAKO
DURANGALDEKO
DENDA BAKARRA**

Oinak zaintzea
osasuna delako,
haur zein nagusiengan

Zeharkalea 6 behea
Udaletxe ondoan
DURANGO
@oski_barefoot

IREKIERA DATA **Maiatzak 12**
10:00 - 13:30
17:00 - 19:30